



“EAEn dantzaren alorreko hezkuntzako araudia aldatzeko eta garatzeko hainbat proposamen” (Lehen zirriborroa)

Alicia Gómez Linares eta Ana Remiro Esnoz

ADDEko Hezkuntza Batzordea
Asociación de Profesionales de Danza del País Vasco
Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarte

ADDE Asociación de Profesionales de la Danza del País Vasco /
Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarte
IFZ: G 95428801
Mesedeetako kaia 3, 4B 48003 Bilbo
944 329 314 / 688 61 20 52 info@adde.danza.org

2011ko martxoak 31

1. SARRERA	
3	
2. HELBURUAK	
4	
3. METODOLOGIA	4
4. EAEko DANTZA ARLOKO TREBAKUNTZARA ZUZENDUTAKO BEKEN ETA LAGUNTZEN DEIALDIAK	5
4.1. Dantza arloko trebakuntzarako beka eta laguntzak: BIZKAIA	
4.2. Dantza arloko trebakuntzarako beka eta laguntzak: ARABA-GASTEIZ	
4.3. Dantza arloko trebakuntzarako beka eta laguntzak: GIPUZKOA	
4.4. Dantza arloko trebakuntzara zuzendutako beken eta laguntzen deialdia aldatzeko proposamena	
5. DANTZA	ESKOLAK 9
5.1 Indarrean den legeriaren azterketa eta deskribapena	
5.2. Dantza, musika eta dantza-eskolei buruzko dekretuan	
5.3. Dekretuari buruzko balorazioa: Alde onak eta txarrak	
5.4. Dantza-eskolen araudiak garatzeko proposamenak	
6. DANTZAREN IRAKASKUNTZA	
12	
6.1 Indarrean den legeriaren azterketa eta deskribapena	
6.2. EAEko dantza-irakaskuntzari buruzko araudia garatzeko proposamena	
7. EMAN BEHARREKO URRATSAK...	17
8. ERANSKINAK	17



1. SARRERA

Interes handia pizten digu dantzaren egoerak eta, bereziki, gure autonomia erkidegoan dantza-heziketaren prozesuaren nondik norakoek.

Dantzaren irakaskuntza, dantzaren balioen, ideien, mekanismoen eta jakintzen transmisioa, gure ustez, gure gizartearentzat garrantzi handiko eta eraldatzeko ahalmen handiko eremuak dira.

ADDE, Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarteko Hezkuntza Batzordeko kideok prestatu dugun lehen zirriborro honen helburua da dantzaren testuingurua ikertzea inguruan dituen baldintza eta ezaugarri zehatzak aztertuz, dantzaren funtzionamenduari buruzko xehetasunak sakon aztertzea, zailtasunak eta gabeziak detektatzea eta indar-guneak ere identifikatzea, horrela, egin litezkeen hobekuntzak aztertzeko.

Hezkuntzaren arloa garrantzi handikoa eta ezinbestekoa da gure herrian dantza behar bezala gara dadin.

ADDEko Hezkuntza Batzordea, 2010eko udaberrian sortu zenetik, dantzari dagozkion hezkuntzako politiken jarraipena egiten aritu da eta arlo horri dagokion legeria ere aztertu du EAEn dantzaren hezkuntzarako araudi bidezko doikuntzak proposatzeko.

Lehen fase hau burutu dugu eta honako txosten hau idatzi dugu:

“EAEn dantzaren alorreko hezkuntzaren araudia aldatzeko eta garatzeko hainbat proposamen. (Lehen zirriborroa)”.

2011n, ADDEko Hezkuntza Batzordeak zirriborro hau ADDEko bazkideei aurkeztu eta haiekin eztabaidatu nahi du; baita zirriborroan agertzen diren administrazioekin eta lankide dituen beste eragile batzuekin ere; hala nola, “DantzaBiz”, dantzari buruzko aholkuak emateko Bizkaiko Foru Aldundiko batzordea, Eszenika, Arte Eszenikoen Goi Mailako Eskola abian jartzeko lanean ari den Lan Batzordea.



Agiri hau zuekin partekatu nahi dugu. Aztertu nahi ditugun bide posible batzuk besterik ez ditugu aipatu hemen; izan ere, gure inguruan dantza irakasteko eta ikasteko baldintzak hobetzeko helburu handi hori lortzeko lehen urratsa besterik ez da honakoa.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari, txosten hau idazteko lanak finantzatzen laguntzeagatik.

2. HELBURUAK

- Dantzaren arloko hezkuntzari buruz indarrean dagoen araudia jaso eta laburtzea, eta modu arinean eta errazean jakinaraztea.
- Araudi horren azterketa bat egitea alde onak eta txarrak nabarmenduz, horrela, hobetzeko proposamenak egin ahal izateko.
- Gure erkidegorako araudia hobetzeko eta garatzeko proposamenak egitea.
- Txosten hau dantzaren arloko hezkuntza-sektorea osatzen duten eragileei erakustea eta edukia haiekin eztabaidatzea, iritzi eta sentsibiltate ezberdinak jasotze aldera.
- Txosten honen edukia osatzea, aldatzea edo berrestea, ondoren erakundeei aurkezteko.

3. METODOLOGIA

Las autoras de este informe titulado: ***“EAEn dantzaren alorreko hezkuntzaren araudia aldatzeko eta garatzeko hainbat proposamen (Lehen zirriborroa)”*** izeneko txosten honen egileak 2010ean hasi ziren txostena prestatzen, orduan sortu berria zen ADDEko Hezkuntza Batzordeko kide zirela.

Lehen lana dantzaren arloko hezkuntzari eta trebakuntzari buruzko tokiko, erkidegoko eta estatuko araudia irakurtzea eta ulertzea izan zen, EAEn dugun egoeraren nondik norakoak jakite aldera.



Ondoren, hausnarketa egin genuen dantzaren arloko hezkuntzan araututa dagoenaren alde onei eta txarrei buruz eta araudia hobetzeko proposamenak pentsatu genituen gure artean bilerak eginda, lineako bilerak eginda eta ADDEko Zuzendaritza Batzordearekin bilduta.

Uste baino denbora gehiago behar izan genuen zirriborroa idazteko eta, azkenean, 20011ko martxoan amaitu genuen.

2011n, Hezkuntza Batzordeak sektoreko eragileekin eta administrazioekin jardunaldi bat eta bilerak antolatzeke asmoa du txostenaren edukia aurkezteko, eztabaidatzeko eta eguneratzeko. Eztabaida horietatik abiatuta hasierako testuari egingo dizkiogun proposamenak eta/edo aldaketak hobeto osatuta eta sektorearekin eta administrazioekin kontsultatu ondoren egingo dugun bigarren txostenean jasoko ditugu.

4. EAE-KO DANTZA ARLOKO TREBAKUNTZARA ZUZENDUTAKO BEKEN ETA LAGUNTZEN DEIALDIAK

Gure hiru lurralde historikoetan dantzako ikasketak sakontzeko ditugun beka alderatzeko azterlan bat egin dugu eta konturatu gara badirela gogoeta eragiten duten aldeak batetik bestera.

Hiru alderdiri erreparatu diegu, batez ere: arloak eta modalitateak, adinaren araberako hautaketa-irizpidea eta lurralde historiko bakoitzeko beken zenbateko ekonomikoa.

Ondoren, banan-banan zehaztuko ditugu lurralde bakoitzaren ezaugarriak.

4.1. *Dantza arloko trebakuntzarako beka eta laguntzak: BIZKAIA*

Hasieratik gure arreta piztu duen alderdia eta Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarteak garrantzia eman diona zera da, Bizkaiko Foru Aldundiak adin-mugari jarritako gehiegizko murriztapena, beka eskatzeko, gehienez 20 urte izatea ezinbesteko baldintza baita. Gure iritziz, irizpide hori anakronikoa da eta ez dator bat gaur egungo dantza-ikasleen egoerarekin eta beharrekin. Horrez gain, musikaren modalitatearekin alderatuta neurri ezberdina ezartzen du, musikan gehienez 30 urte izatea eskatzen baita.



Gainera, dantzaren atalean zehaztutako arloak ez daudela behar adina zehaztuta deritzogu. *Dantza moderno garaikidea* terminoa ez dator bat diziplina zehatz batekin eta, gainera, *dantza klasikoa* eta *dantza moderno garaikidea* terminoak erabiltzeak dantzak bere dituen gainerako adierazpen artistikoak mugatu eta kanpoan uzten ditu.

Horrez gain, gure arreta piztu du beste arteei dagozkien atalak garatuago eta eguneratuago daudela ikusteak, modalitateei dagokienez behintzat.

Dantzari dagozkion testu horiek ez daudela eguneratuta uste dugu, ez baitira bereizten koreografiaren gisako oinarrizko alderdiak, interpretazioa alde batera utzita, eta ez dira aipatzen dantzak bere baitan hartzen dituen diziplina ugari.

Beken eskaintzen diru-hornidurari ere erreparatu diogu eta, Bizkaiaren kasuan, konturatu gara baliabide ekonomiko gutxiago eskaintzen zaizkiola dantzari gainerako diziplina artistikoekin alderatuta.

Horrek erakusten digu, Bizkaian, dantzak abiapuntutik dituela desabantailak beste arteekin alderatuta; oinarrizko alderdietatik ditu desabantailak, ikasketa espezializatuak egiteko desabantailak, esaterako.

4.2. *Dantza arloko trebakuntzarako bekak eta laguntzak: ARABA-GASTEIZ*

Arabako Foru Aldundiaren beken deialdietan egoera hobea aurkitu dugu edo, behintzat, desabantaila gutxiago ditu dantzak aztertu ditugun gainerako arteekin alderatuta.

Bekak eskatzeko gehieneko adina 30 urtekoa da eta hori, gure ustez, dantzaren egungo egoerari hobeto egokitzen zaio, lehen esan dugun bezala.

Zehaztuta dauden ataletan interpretazioa edo koreografiaren gisako modalitateak ez daude azalduta, baina atal horiek diziplinak kanpoan ez uzteko bezain orokorrak badira behintzat.

Azkenik, beken diru-hornidurak ez du bereizketarik egiten arte batzuen eta besteen artean eta irizpide geografikoa soilik aplikatzen da diru kopuru jakin bat eskuratzeko.

4.3. *Dantza arloko trebakuntzarako bekak eta laguntzak: GIPUZKOA*



Este texto está bajo una [Licencia de Creative Commons](#)

Algunas propuestas de modificación y desarrollo normativo en materia educativa de danza en la CAPV. (Primer Borrador).

Elaborado por Alicia Gómez Linares y Ana Remiro Esnoz, miembros de la Comisión de Educación de ADDE. [Asociación de Profesionales de la Danza del País Vasco / Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarte](#).

Azkenik Gipuzkoako Foru Aldundiaren deialdien ezaugarriak aztertu ditugu. Ondorengo ikusi dugu.

Adinari dagokionez, Gipuzkoan ez da hautagaien gehieneko adina mugatzen, baina balorazio-irizpideetan hautagaien gaztetasuna aintzat hartuko dela adierazten da.

Bi kontu aipatu nahi genituzke alderdi hori baloratzeko. Batetik, ondo iruditzen zaigu adin-mugarik ez ezartzea. Bestetik, koreografiaren modalitatean, ez zaigu gomendagarria iruditzen gaztetasuna lehenestea.

Dantzaren atalean, honako modalitateak daude jasota: dantza klasikoa, garaikidea eta koreografia.

Hor ere bi aldetako balorazioa egin beharrea gara. Alde batetik, dantza klasikoaren eta garaikidearen definizioak beste dantza-diziplina batzuk alde batera uzten dituzte eta hori ez zaigu egokia iruditzen. Hala ere, positiboa iruditzen zaigu koreografiaren modalitatea agertzea.

Egokiagoa iruditzen zaigu modalitateak interpretazioa eta koreografia ataletan sailkatzea eta dantza-estilo guztiak aintzat hartzea.

Zenbateko ekonomikoari dagokionez, dantzara bideratutako laguntza musikara eta antzerkira bideratutakoaren berdina da eta, kasu honetan, egoera okerragoan daude arte bisualak eta erakusketak.



GAIAK	ARABA-GASTEIZ	BIZKAIA	GIPUZKOA
ARLOAK MODALITATEAK	ETA <i>Arte eszenikoak (dantza, antzerkia, zirkoa eta mikoa) eta musika-arteak</i>	<i>Dantza klasikoaren eta moderno garaikidearen teknika sakontzea</i>	<i>Dantza: dantza klasikoa eta garaikidea eta koreografia.</i>
ADIN MUGA	<i>30 urtetik beherakoak izatea</i>	<i>20 urtetik beherakoak izatea</i>	<i>Ez dago adin mugarik</i>
DIRU-HORNIDURA	<i>Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo eta estatuaren barruan gauzatzeko proiektuak: 3.500€ Atzerrian gauzatzeko proiektuak: 5.500€</i>	<i>Dantza: 7.000 euro bekatan eta 7.000 euro laguntzetan.</i>	<i>Dantza: 4 beka, guztira 27.000 €.</i>

1. taula: Dantzan trebatzeko EAEko foru aldundiak ematen dituen beken eta laguntzen 2010eko deialdien deskribapena eta alderaketa



4.4. *Dantzan trebatzeko beken eta laguntzen deialdia aldatzeko proposamena*

ADDEk izan ditu elkarrizketa batzuk dagoeneko Bizkaian dantzako ikasketa espezializatuak egiteko beka eskatu nahi dituztenentzako adin-mugaren irizpidea kentzeko edo minimizatzeko helburuarekin.

Esan beharrea gara hainbat alditan harremanetan jarri eta hitz egiten saiatu eta emaitzarik lortu gabe gelditu ondoren, azkenean, jaramon egin digutela (gure eta beste profesional batzuei) eta 2011rako Bizkaiko beken deialdirako oinarrietan **kendu egin dutela adinari dagokion irizpidea**.

Bizkaiko deialdiaren oinarrietan aldaketa hori lortu izana lorpen handizat daukagu eta lanean jarraituko dugu Arabako eta Gipuzkoako Foru Aldundietan ere neurri hori proposatu ahal izateko kontaktuen bila.

Uste dugu, gainera, Araba-Gasteizko dantzako generoen eta okupazioen modalitate irekiaren deialdia Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundiek aintzat hartzeko moduko eredia izan litekeela, bi aldundi horiek mugatu egiten baitituzte beka eskatzeko aukerak; Gipuzkoakoak dantza klasikoaren eta garaikidearen interpretaziora eta Bizkaikoak dantza klasikoaren eta garaikidearen koreografiara eta interpretaziora.

5. DANTZA ESKOLAK

5.1 *Indarrean den legeriaren azterketa eta deskribapena*

Euskal Autonomia Erkidegoko musika-eskolen dekretua (urriaren 27ko 289/1992 Dekretua) da momentuz musikaren eta dantzaren ikasketei dagokien araudi bakarra, arautu gabeko arloari dagokionez.

Dekretu hori Europako Erkidegoko Musikaren Irakaskuntza eta Sustapenari buruzko Europako Parlamentuaren 1988ko otsailaren 10eko Ebazpenean dago oinarrituta. Ebazpen horretan zehazten diren hainbat alderdi baloratzen ditu dekretuak eta ebazpeneko hainbat eskaera eta proposamen nabarmentzen ditu.

Urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren 39.5 artikuluari ere egiten dio erreferentzia. Artikulu horretan aipatzen dira ikasketa artistikoak, bereziki, musika eta dantza arautu gabe ikasteko eskolei dagokienez.



Hori guztia aintzat hartuta, dekretuak bi modu bereizten ditu aipatutako ikasketak egiteko: arautua eta arautu gabea. Sailkapen horretatik abiatuta, hainbat artikulutan, musikaren irakaskuntzari forma ematen dio, arautu gabeko ikasketei dagokienez.

Dekretuak, kapituluetan aurrera egin ahala, hainbat alderdi jorratzen ditu; hala nola aplikazio eremua, helburua, irakaskuntzaren antolaketa, instalazioek bete beharreko baldintzak eta baldintza materialak, eta irakaskuntza-eskaintzari dagokionez, irakaskuntzaren antolaketa, irakasleek izan beharreko tituluak eta zentroen baimenei dagozkien hainbat alderdi ere bai.

Xedapen gehigarri eta iragankor batzuk baditu dekretuak eta horietan azaltzen dira lehendik abian dauden musika-zentroak egokitzeko prozedurak eta titulaziorik gabeko irakasleak gaitzeko prozedurak.

5.2. Dantza, musika eta dantza-eskolei buruzko dekretuan

Dantza zeharka bakarrik ageri da dekretu honetan eta, gainera, “dantza tradizionala” bakarrik agertzen da.

Dekretua musika-eskolak arautzeko dago egina eta ia testu osoa musikaren arloan irakaskuntzari dagokio. Hainbat espezialitateen bereizgarriak aintzat hartzen ditu; besteak beste, kantua eta organoa, eta arreta piztu digu dantza ere bertan dagoela eta hain azaletik jorratu dela ikusteak.

Dekretuak hiru erreferentzia labur egiten dizkio dantzari, betiere, “erro tradizionaleko dantzari” (2., 6. eta 22. artikulua) eta oraingoz, ez dago gure autonomia erkidegoan dantzaren arautu gabeko irakaskuntza zehazten, azaltzen edo antolatzen beste araurik.

5.3. Dekretuari buruzko balorazioa: Alde onak eta txarrak

Dekretuak baditu alde onak gure ustez; esaterako, testuinguru europarra aintzat hartzen du, Europako Parlamentuaren musikaren irakaskuntzari eta sustapenari buruzko ebazpenaren edukiak bere eginez. Ebazpen horrek baloratzen du musikak gizarte modernoan duen gero eta garrantzi handiagoa, musikak dakarren hausnarketa kulturalaren aberastasuna eta gero eta ugariagoa den publikoaren artean muskarako sarbidea eta partaidetza aktiboa sustatzeko beharra.



Helburu orokorrak ere oso interesgarriak dira; izan ere, arautu gabeko irakaskuntza honen osagai praktikoa eta adin-mugarik gabe edonorentzako modukoa izatearen ezaugarria nabarmentzen ditu.

Horrez gain, oso egokiak dira titulurik gabeko profesionalak gaikuntzaren bidez aitortza jasotzeko tresnak.

Hala ere, hainbat alderdi zorrotzegi araututa daudela uste dugu; esaterako, gutxienezko irakaskuntza-eskaintza, ikasleen antolaketa zurruna, gehienezko dedikazio-denbora eta laguntza jasotzen duten ikasleen adin-muga.

Ikasketak lau mailatan antolatzea egokia da eta hainbat autonomia erkidegotako ikasketak arautzeko ia proposamen guztietan ageri da.

Oro har, egokiagoa eta beharrezkoa iruditzen zaigu testuinguru bati forma eman eta norabide pedagogikoak markatzen dituzten testuak izatea, baina, betiere, profesionalen jarduna gehiegi estutu eta mugatu gabe eta ikasketa hauetan hasten den ikasle multzoa oso heterogeneoa dela aintzat hartuta.

5.4. Dantza-eskolen araudiak garatzeko proposamenak

Dantzaren oinarritzko ikasketek araudietan eta antolaketan duten hutsunea betetzeko asmotan, jarduera horiek arautzea proposatu nahi dugu. Uste sendoa dugu arautzeak gure erkidegoko dantza-eskolei inoiz izan ez duten aitortza eta ikusgarritasuna emango diela.

Etorkizunean erakundeen laguntza (diru-laguntzak) jasotzeko aukera izateko oinarriak ere finkatuko lituzke eta gure eskolak, eta gure sektorea musikaren moduko beste arte batzuek izan duten funtzionamenduari eta laguntzarekin parekatuko lirateke.

Horretarako, Andaluziako autonomia erkidegoak alor honetan prestatu berri duen dekretua erreferentzia gisa hartzea proposatzen dugu; izan ere, dekretu horrek, gure iritziz, eskema zabalak eta interesgarriak proposatzen ditu.

Interesgarria litzateke oinarritzko ikasketak bi antolaketa-eredutan bereiztea, interes eta sakontasun ezberdinak aintzat hartuta.



Alde batetik, eskola-umeentzat diseinatutako trebakuntza-prozesuak jasoko dituzten *oinarrizko ikasketak*. Bestetik, *hastapenerako ikasketak edo dinamizazio kulturala*, edonori zuzenduak, adin eta prestakuntza guztietako jendeari, alegia.

Irakatsi beharreko materialei dagokienez, Andaluziako proposamenak ikasgai-sorta zabala eta anitza jasotzen du, dantzaren alderdi guztiak biltzen dituena.

Ikastaroen antolaketari dagokionez, bina urteko bi zikloko egitura bat proposatzen du *oinarrizko ikasketetarako* eta iraupen eta egitura aldagarriko ikastaroak edo zikloak *hastapeneko ikasketetarako*, ikasleen trebakuntza-beharren arabera.

Hastapeneko ikasketetarako, musika eta mugimendua, sormenezko dantza eta hainbat motatako dantza-tailerrak proposatu dituzte trebakuntza-eremu gisa.

Oinarrizko ikasketetan honako arloak sartuko dituzte: heziketa eta mugimenduaren adierazpena, dantza herrikoa, oinarri akademikoa, dantza klasikoa, dantza garaikidea, dantza espainiarra, flamenkoa, dantza klasiko espainiarra eta folklorea.

Eredu gisa proposatu dugun dekretu horren arabera, dantzako oinarrizko ikasketen helburua ikasleei kalitatezko trebakuntza artistikoa eskaintzea eta dantzaren oinarrizko jakintzak irakastea da. Bi ildo ditu: batetik, trebakuntza eta, bestetik, ondorengo ikasketak egiteko prestatzea.

6. DANTZAREN IRAKASKUNTZA

6.1 Indarrean den legeriaren azterketa eta deskribapena

Espainiako hezkuntza-sistema **2/2006 HEZKUNTZAKO LEGE ORGANIKOAK**, maiatzaren **3koak**¹, (aurrerantzean HLO) arautzen du. Lege horrek hezkuntzako marko berria ezarri

¹ Maiatzaren 3ko 2/2006 **LEGE ORGANIKOA**, Hezkuntzari buruzkoa (BOE 106 zk., 2006ko maiatzak



Este texto está bajo una [Licencia de Creative Commons](#)

Algunas propuestas de modificación y desarrollo normativo en materia educativa de danza en la CAPV. (Primer Borrador).

Elaborado por Alicia Gómez Linares y Ana Remiro Esnoz, miembros de la Comisión de Educación de ADDE. [Asociación de Profesionales de la Danza del País Vasco / Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarte](#).

zuen eta aldaketa garrantzitsuak ekarri zituen dantzaren irakaskuntzara 2007-2008 ikasturtetik aurrera.

HLOk ezarritako egungo hezkuntza-sisteman honako hauek dira irakaskuntza-artistikokoak:

- musika eta dantzako oinarriko ikasketak;
- ikasketa artistiko profesionalak (musikako eta dantzako ikasketa profesionalak eta arte plastikoetako eta diseinuko erdi mailako eta goi mailako ikasketak); eta
- goi mailako ikasketa artistikoak (musika eta dantzako goi mailako ikasketak, arte dramatikoko ikasketak, ondare kulturalak kontserbatzeko eta zaharberritzeko ikasketak, arte plastikoen goi mailako ikasketak eta horien barruan, zeramika eta beiraren goi mailako ikasketak).²

Ez da Errege Dekretua dantzaren oinarriko ikasketen (ikasketa profesionalen aurrekoak) curriculumaren oinarriko alderdiak ezartzeko garatu, ezta garatuko ere, oinarriko ikasketak ez datozelako bat estatuko oinarriko alderdi komunekin, baizik “hezkuntzako administrazioek erabakitako ezaugarriak eta antolaketa izango dituzte”³. EAEn, oraindik, dantzako oinarriko ikasketak garatzeke daude.

Hala ere, badira dantzako ikasketa profesioletarako eta goi mailako ikasketetarako oinarriko edukiak ezartzen dituzten Errege Dekretuak. Araudi hori da autonomia erkidego bakoitzean dantzako ikasketen curriculumak eta ordutegiak ezartzeko erabilitako oinarriko testua. “Gutxieneko ikasketen oinarriko edukiek eskola-orduen ehuneko 55 izan beharko dute hizkuntza koofizial bat duten autonomia erkidegoetan eta ehuneko 65 hizkuntza koofizialik ez dutenetan”⁴.

Ikasketa profesionalak sei ikasturtetan daude antolatuta eta lau espezialitate daude: dantza flamenkoaren espezialitate berria eta lehendik dauden hirurak: dantza klasikoa, dantza garaikidea eta dantza espainiarra.

Ikasketa artistiko profesionalak eta derrigorrezko bigarren hezkuntza aldi berean egiteko aukera emango duten neurrien beharra nabarmendu dugu berriro. Hala ere, ikasketa profesionalen gutxieneko eskola-ordu kopurua orain arteko dantzako erdi

4, osteguna).

² ESTATUKO BURUZAGITZA. 2/2006 HEZKUNTZAKO LEGE ORGANIKOA, maiatzaren 3koa. (BOE 106. zk., 2006ko maiatzak 4, osteguna).

³ HLO, 48. artikulua.

⁴ HLO, 6.3. artikulua.



mailako ikasketen ordu kopurua bezain altua da eta horrek harritu egin gaitu, azken urteetan eskola-orduak gutxitzearen aldeko iritziak asko izan baitira.

Dantzako ikasketa profesionaletako berrikuntza garrantzitsuena jarri zaion helburu dibertsifikatuan dago. “Oinarrizko lau funtzio ditu: trebakuntza, orientazioa, profesionalizazioa eta ondorengo ikasketetarako prestakuntza”⁵. Tamalez, hamar urtez itxaron behar izan dugu LOGSERen erdi mailako garapenak jasotzen zuen helburu artistiko profesional eskusiboa zuzentzeko⁶ eta erreforma garrantzitsu hau egiteko. Aldaketa hau hobeto egokitzen zaie ikasleek benetako profilei eta interesei.

Dantzako goi mailako ikasketa artistikoen egitura honakoa da: gradu mailako ikasketa artistikoak, master mailako ikasketa artistikoak eta doktoretza-ikasketak. Dantzako gradu goi mailako ikasketa artistikoen oinarrizko edukiak 2010eko ekaineko BOEn argitaratu zituzten. Ikasketa horiek bat datoz Europako Unibertsitate Eremuarekin eta dantzako graduatu titulua lortzera bideratuta daude, bakoitzari dagokion espezialitatean. Unibertsitateko gradu tituluen parekoak dira ondorio guztietarako. Eszenika, Arte Eszenikoen Goi Mailako Eskolaren lan batzordea ari da dantzako graduaren curriculumak, bi espezialitateetan, zehazten.

Dantzako gradu ikasketa artistikoak eginda bi titulu ofizial eskuratzeko aukera izango da:

- a) Dantzan graduatu titulua, koreografia eta interpretazioa espezialitatea
- b) Dantzan graduatu titulua, dantzaren pedagogia espezialitatea

“Dantzako graduatuaren profila dantzaren arloko ezagutzak eta gaitasuna dituen profesional gaitu bati dagokiona izango da. Gorputzaren funtzionamenduaren nondik norakoak sakon ezagutuko ditu zentzu guztietan, dantza-jardunari lotutako jakintza teorikoak izango ditu eta horiek sortzaile, interpretatzaile eta pedagogo gisa hazteko aukera emango diote eta erantzukizun pertsonalaren eta profesionalaren dimentsio etikoa eta deontologikoa bere gain hartzeko gai izango da” (MEC, Errege Dekretua 632/2010: 48503)

Goi mailako ikasketa ofizialak egiteko, batxilergo-titulua edo 25 urtetik gorakoentzako unibertsitateko sarrera-proba gaindituta izan behar da, edo bestela, proba bat gainditu

⁵ 85/2007 ERREGE DEKRETUA, 1. artikulua

⁶ 1254/1997 ERREGE DEKRETUA, uztailaren 24koa. Dekretu horren bidez ezartzen dira erdi mailako dantza-ikasketen curriculumaren oinarriak (1997ko irailaren 4ko BOE, 212 zk.). Dekretuaren hitzaurreak honela dio: “erdi mailako ikasketen oinarriek ikasketa espezializatuei dagokien espresio artistikoaren maila bermatu behar dute. Ikasketa espezializatuaren helburua profesionalki jardutea da eta horregatik daude gaitasun espezifikokoak eta horretan lan egiteko borondatea duten ikasleei zuzenduta”.



beharko du hautagaiak batxilergoko helburuekin bat datorren heldutasun maila duela frogatzeko eta dantzako proba bat ere gainditu beharko du.

Dantzako graduatu titulua lortzeko ikasketa-planek 4 ikasturte dituzte, bakoitza 60 kreditukoa; 240 kreditu guztira, beraz. Horietatik 132 Ikasketa Artistikoen Kontseilu Nagusiak adostutakoak dira (BOE, 632/2010 ERREGE DEKRETUA, 48501-48516 or.) eta ondorengo taulan zehaztutako gai komunei dagozkie:



ESPEZ. KOREOGRAFIA ETA INTERPRETAZIOA			ESPEZ. DANTZAREN PEDAGOGIA		
GAIAK		GUTXIENeko ECTS KOPURUA GRADUAN	GAIAK		GUTXIENeko ECTS KOPURUA GRADUAN
OINARRIZ KO TREBAKU NTZA	Dantzaren historia eta humanitateak	12	OINARRI ZKO TREBAKU NTZA	Dantzaren historia eta humanitateak	12
NAHIT. E S P E Z I A L I T A TEA	Osasun zientziak dantzara aplikatuta	12	NAHIT. E S P E Z I A L I T A TEA	Osasun zientziak dantzara aplikatuta	12
	Dantza eta mugimendu teknikak	22		Dantza eta mugimendu teknikak	18
	Koreografiaren konposizioarako eta inprobisazioarako teknikak	20		Sormenerako tresnak	6
	Lan koreografikoen eta errepertorioaren analisisa eta praktika	20		Lan koreografikoen eta errepertorioaren analisisa eta praktika	18
	Musika eta soinu- mintzairak dantzara aplikatuta	6		Musika eta soinu- mintzairak dantzara aplikatuta	6
	Eszenaratzea eta dramaturgia	10		Dantza irakasteko didaktika eta metodologia	22
	Dantzari aplikatutako teknikak	6		Dantzaren psikopedagogia	12
	Proiektu artistikoen antolaketa, kudeaketa eta gauzatzea	8		Proiektu artistikoen antolaketa, kudeaketa eta gauzatzea	10



Praktikak	10	Praktikak	10
Gradu amaierako lana	6	Gradu amaierako lana	6

2. taula. Dantzako Graduko Ikasketa Artistikoetako gaiak eta gutxieneko ECTSak, HLO

6.2. EAEko dantza-irakaskuntzari buruzko araudia garatzeko proposamena

Dantza-eskolak eta irakaskuntza arautzeko araudia garatzeko beharra ikusten dugu eta, beraz, autonomia erkidegoko dantza-zentroek orain aukera ona dute bildu eta hezkuntzako administrazioarekin hitz egiteko, ikasketa horiek antolatzeko adostasuna lortze aldera.

- a) **Oinarrizko ikasketak**, Andaluzian egin duten bezala, **bi bidetatik antola daitezke, bide bakoitzak irakasteko bere erritmoa eta oinarrizko gaiak dituela.**
- b) Ikasketa profesionaletan eskola-ordu asko izateak eragotzi edo gehiegi zailtzen du ikasketa mota bat baino gehiago aldi berean egitea eta, beraz, aintzat hartu behar litzateke **dedikazio partzialeko matrikula** egiteko aukera ematea.
- c) Hainbat zentro pribatuk administrazioari baimena eskatu dio ikasketa ofizialak eskaini ahal izateko, baina 1992tik 2010era azpiegituretan bete beharreko baldintzak oso zorrotzak izan dira espazioari dagokionez eta, beraz, ezin izan dituzte baldintzak bete. **Espazioari buruzko baldintzetan hain zorrotza ez den araudi berria dela-eta**, litekeena da dantza-zentroek ikasketak eskaintzeko baimena eskatzea.
- d) Badira hainbat dantza-ikasle nerabe dantzako ikasketa ez-ofizialak profesionalki dantzari izateko asmoarekin egiten dituztenak eta, beraz,



komenigarria litzateke **maila neurtzeko proben bidez ebaluazioa** egiteko modu bat bilatzea.

7. EMAN BEHARREKO URRATSAK...

ADDEren Hezkuntza Batzordeak gauzatu duen lehen fase honen ondoren, bigarren faseari ekingo diogu eta fase horretan txosten hau dantzaren munduko EAEko eragileei aurkeztuko diegu hobekuntzak egiteko eta araudia garatzeko proposamenak hobeto aztertzeko, hedatzeko eta ebaluatzeko.

8. ERANSKINAK

1. **Bizkaiko Foru Aldundiaren 14/2010 FORU DEKRETUA, otsailaren 23koa.** Foru Dekretu honek arautzen ditu 2010eko ekitaldirako kultur arloko esleipen berriko beka eta laguntzen eskaerak eta emakidak, bai eta 2008. eta 2009. urteetan lehenengoz eman ziren bekak berritzeko eskaerak eta emakidak ere. (BAO, 41. zk. 2010eko martxoak 2, asteartea).
2. **Bizkaiko Foru Aldundiaren 17/2001 FORU DEKRETUA, otsailaren 15koa.** Foru Dekretuaren bidez, oinarri arautzaileak eta deialdia onartu ziren, batetik 2011ko ekitaldirako kultur arloko esleipen berriko beka eta laguntzetarako, eta, bestetik, ikusizko eta ikus-entzunezko arteen eta sintesi-irudiaren, musikaren, arte dramatikoaren, dantzaren eta kudeaketa kulturalaren modalitateetan 2009an lehenengoz eman ziren bekak berritzeko (BAO, 38. zk., 2011ko otsailak 24).
3. **2010eko apirilaren 13ko Diputatuen Kontseiluaren Erabakia.** Erabakiaren bidez arautzen da Kultura eta Euskarako Departamenduak kudeatutako programetako bekak eta laguntzak emateko araubidea (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 70. zk., 2010eko apirilak 19).
4. **75/2010 FORU AGINDUA, otsailaren 9koa.** Foru Aginduaren bidez onartu zen 2010eko ekitaldian arte eszenikoetan eta musika-arteetan espezializatzeko eta/edo sakontzeko laguntzen deialdi publikoa (ALHAO, 20. zk., 2010eko otsailak 19, ostirala).
5. **2/2006 HEZKUNTZAKO LEGE ORGANIKOA, maiatzaren 3koa** (BOE 106 zk., 2006ko maiatzak 4, osteguna).



6. **16/2009 DEKRETUA, urtarrilaren 20koa.** Dekretu honek ezartzen du Andaluziako Dantzako Oinarriko Ikasketen Antolamendua eta Curriculumua. (BOJA 23. zk., Sevilla, 2009ko otsailak 4).
7. **85/2007 ERREGE DEKRETUA, urtarrilaren 26koa.** Dekretuak ezartzen ditu 2/2006 Hezkuntzako Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, araututako dantzaren ikasketa profesionalaren curriculumeko oinarrizko alderdiak. (BOE 38. zk., 2007ko otsailak 13, asteartea)
8. **252/2007 DEKRETUA, abenduaren 26koa.** Dekretuaren bidez ezartzen dira dantzako ikasketa profesionalen curriculumua eta ikasketa horietarako sarbidea. (EHAA 53. zk., 2008ko martxoak 14, ostirala).
9. **1614/2009 Errege Dekretua, urriaren 26koa.** Dekretuak ezartzen ditu 2/2006 Hezkuntzako Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, araututako goi mailako ikasketa artistikoen antolamendua. (BOE 259. zk., 2009ko urriak 26, asteartea).
10. **303/2010 Errege Dekretua, martxoaren 15koa.** Errege Dekretuaren bidez ezartzen dira 2/2006 Hezkuntzako Lege Organikoak (BOE 86. zk., 2010eko apirilak 9, ostirala) araututako ikasketa artistikoak eskaintzen dituzten zentroentzako gutxieneko baldintzak.
11. **632/2010 Errege Dekretua, maiatzaren 14koa.** Errege Dekretu honek arautzen ditu 2/2006 Hezkuntzako Lege Organikoak, maiatzaren 3koak (BOE 137. zk., 2010eko ekainak 5, larunbata) ezarritako dantzako gradu goi mailako ikasketa artistikoetako oinarrizko edukiak.



ERANSKINAK

